

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

2019/2020 ikasturtean unibertsitate ikasketak egin eta bizi diren udalerritik beste udalerrira batera joan behar duten ikasle gazteentzat dirulaguntzak emateko deialdia

Gazteriaren Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluak 2014ko maiatzaren 16an oinarri arautzaileak onartu ditu (2014ko maiatzaren 26ko ALHAO, 58.zenbakia) unibertsitateko eta unibertsitateaz kanpoko ikasle gazteei dirulaguntzak emateko.

2019/2020 ikasturtean unibertsitate ikasketak egin dituzten eta bizi diren udalerritik beste udalerrira batera joan behar duten ikasle gazteentzako deialdi hau, Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak 2020ko ekainaren 8ko bileran onartutakoa, aipatutako oinarri arautzaile orokorreari eta ondoko ataletan ezarritakoari lotuko zaie.

1. Deialdiaren helburua

Laguntza hauen helburua da ahalbidetzea ikasle arabarrek prestakuntza arautua eduki ahal dutela unibertsitate ikasketak egiteko bizi diren udalerritik zentro publiko edo pribatuak dauden udalerrira joan behar badute.

2. Onuradunen betekizunak

Oro har, hauexek izan daitezke onuradunak, eskaera egin ondoren:

1. 30 urteko (eskaera egiten den urtean beteta) edo gutxiagoko ikasleak.
2. Arabako Lurralde Historikoan erroldatuak 2019ko abenduaren 31n.
3. 2019/2020 ikasturtean hurrengo artikuluan jasotzen diren ikasketaren batean matrikultuak.
4. Eskatzailearen ohiko bizitokia eta ikastetxea udalerrira ezberdinetan egon behar dira, haien arteko gehieneko distantzia 150 km izanez.

Ez dira laguntza hauen onuradun izango Eusko Jaurlaritzak ikasturte bakoitzerako ematen dituen joan-etorrietarako eta/edo bizilekuagatik laguntzak jaso dituzten pertsonak, beka-mota edo -modalitatea edozein dela ere.

3. Ikasketak eta ikastaldia

Laguntza deialdi hau ikasketa hauetara dago mugatuta:

Unibertsitate ikasketak:

- Unibertsitate graduiko ikasketak, karrera amaierako proiektuak barne.
- Musika eta dantzako goi mailako irakaskuntzak, arte dramatikokoak, arte plastiko eta diseinukoak.

Ez dira sartzen ikasketa mota hauek: edozein motatako masterrak, doktoretzak, zenbait gairen adituak, beste trebakuntza batzuetara sartzeko prestakuntza ikastaroak edo oposizio eta antzekoak, ikerketak, gradu-ondokoak eta espezializaziokoak eta urrutiko ikasketak.

Diruz lagundutako ikastaldiak ikasturte bakoitzeko irailtik ekainera bitarteko denbora tartea hartuko du.

4. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Bigarren oinarrian sartutako onuradunentzako laguntzen gehienezko zenbatekoa zenbateko finkoa izango da, bizilekuko udalerritik ikasleen ikastetxea dagoen udalerrira dagoen distantziaren arabera definitua.

- a) 40 km edo gutxiagoko distantzia: 200,00 euro.
- b) 40 km eta 80 km bitarteko distantzia: 280,00 euro.
- c) 80 km eta 150 km bitarteko distantzia: 400,00 euro.

Distantziak zehazteko <http://maps.google.es> web orria erabiliko da eta ibilbiderik laburrena aztertuko da.

Partidaren zenbatekoa zenbateko horiek finantzatzeko nahikoa ez balitz, laguntzak hainbatu egingo dira saldo horren goi-muga jo arte.

5. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

1. Eskabideak uztailaren 1etik 24ra aurkeztuko dira, seigarren oinarrian aipatzen diren agiriarekin batera, Gazteriaren Foru Erakundeak emandako eredu normalizatua behar bezala betez. Bi era daude eskabideak aurkezteko:

- Telematitoki web honetan: <https://gazteria.araba.eus>.

- Aurrez aurre: Gazteriaren Foru Erakundeko bulegoetan (Jesusen Zerbitzarien kalean 5, Vitoria-Gasteiz) aurkeztuko dira 10:00etik 14:00etara edo itundutako udaletako erregistro orokorretan. Horrek ez du eragozten Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritakoa bete behar izatea.

2. Eskaera horietan berariaz adierazi beharko da jakinarazpenetarako helbidea, eta eskaerak idatziz eta modu formalean jaso beharko du deialdi honek xedatutakoa onartzen dela.

3. Eskaerak osorik bete ezean edo oinarri hauetan adierazitako agiriren bat falta izanez gero, interesdunari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean falta diren datuak eta agiriak aurkezteko. Era berean, jakinaraziko zaio adierazitako epean agiri edo datu horiek aurkeztu ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, eta, beraz, eskaera artxibatu egingo dela.

4. Ikasle bakoitzeko eskabide bat bakarrik aurkeztu ahal izango da.

6. Agiriak

Eskaerarekin batera ondoko agiriak aurkeztuko dira:

- a) Laguntza eskaera Gazteriaren Foru Erakundeak emandako inprimaki normalizatuan.
- b) Ikaslearen NANaren fotokopia.
- c) Ikaslea Araban 2019ko abenduaren 31n errolatuta dagoeneko egiaztatzea.
- d) Hirugarren oinarrian jasotzen diren ikasketetan ikasturtean zehar matrikulatuta dagoeneko agiria.
- e) Banku erakundearen kartilaren fotokopia edo kontuaren frogagiria, eskatzailea titularra denekoa.

7. Aurrekontu erabilgarritasuna

Programa honi esleitutako zenbatekoa ehun eta hirurogeita hamazortzi mila eta bostehun (178.500,00) eurokoa da, 2020ko aurrekontuaren 71.1.00.10.00.4.8.0.00.02 partidaren kontura.

Zenbateko gehigarria erantsi ahalko zaio deialdiari, betiere hogeita mila euro baino gutxiago, baldin eta aurrekontu kreditua badago. Gehieneko zenbatekoa handitzeko ebazpena ALHAOn

argitaratuko da; hala ere, argitaratzeak ez du esan nahi epea zabaltzen denik eskaera berriak aurkezteko ezta epe berri bat ere ebazpena emateko.

8. Ebazpen proposamenari buruzko txostena

Balorazio Batzordeak aztertuko ditu eskaerak. Batzorde hori ondokoek eraturiko dute:

- Idazkaritza Teknikoko burua edo hark eskuordetutako pertsona.
- Zerbitzu Orokorretako teknikaria edo hark eskuordetutako pertsona.
- Gazteriako teknikaria edo hark eskuordetutako pertsona.

Batzorde honek dirulaguntza emateko proposamen txostena egingo du eta Gazteriaren Foru Erakundearen gastuak baimendu, xedatu eta agintzeko eskumena duen organoak, Gazteriaren Foru Erakunde Autonomoaren Egiturari eta Funtzionamenduari buruzko Arautegia aldatzen duen ekainaren 8ko Diputatuaren Kontseiluaren 26/2010 Foru Dekretuaren 16. artikuluan ezarritakoa betez, eskaera onartzeko edo ukatzeko ebazpena emango du bost hilabeteko gehienezko epean, eskaerak aurkezteko epea bukatu ondorengo egunetik kontatzen hasita.

Dirulaguntza eman ala ukatu den jakinaraziko zaie erakunde eskatzaileei eskaeran adierazitako helbidean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 42. artikuluan xedatzen den eran.

Deialdi honi eta deialdi honetatik sortutako administrazio-egintza guztiei aurka egin ahal izango zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak emandako idazkeran, ezarritako egoera eta eretan.

Eskatzaileari ez zaio entzunaldi izapiderik aitortuko, eskatzaileak aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino ez baitira kontuan hartuko ebazpenean.

9. Laguntzak ordaintzea

Ordainketa bakarra egingo da eta onuradunaren izenean.

10. Interpretazioa

Deialdi hau dela eta sor daitekeen edozein zalantza Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzaileak argituko du.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 8a

Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzailea
PABLO DE ORAÁ OLEAGA